



Erakusketa - Exposición

# BAZTERTUAK

Adineko emakume helduen erretratuak El Salvadorren

# DESCARTADAS

Un retrato de las mujeres adultas mayores en El Salvador

Marc Espín

Otsailak 23 febrero → Apirilak 24 abril

Kutxa Kultur Plaza

Tabakalera, 4 solairua / planta



lagunkoia  
Proiektuak, Azterketak, Laguntza

kutxa kultur  
kutxa FUNDAZIOA

DESCARTADOS  
ONGI POR LA DIGNIDAD DE LAS PERSONAS MAYORES



## "Baztertuak" erakusketa: El Salvadorreko eta Donostiako adineko emakumeen artean hitz egiteko gonbita

- Donostiako Udaleko Lankidetzaren Sailak eta Donostia Lagunkoia sustatutako Baztertuak erakusketa Kutxa Kultur Plazan izango da otsailaren 23tik apirilaren 24ra bitartean.
- Maria Luisa Mendizabal, emakume aitzindaria da Euskadin etxeko zainketetan lan egiten duten emakumeen eskubideen eta profesionalizazioaren aldeko borrokan; eta Emilio Espín, erreferente bat da El Salvadorreko adinekoen giza eskubideen aldeko borrokan. Martxoaren 3an egingo den mahai-inguruan izango dira, Descartados GKEko presidente eta erakusketaren egile Marc Espínek batera.

Ane Oyarbide Donostiako Udaleko Lankidetzaren zinegotziak adierazi duenez, "argazki erakusketa ibiltari hau adineko emakumeek El Salvadorren izandako abandonuari buruzko 15 erretratu eta istorioak osatzen dute, eta, material horren bidez, elkarriketa gurutzatuen bidez haien eta Donostiako homologoen arteko elkarriketa planteatzen du. Aipatu behar da El Salvadorren adineko bost pertsonatik lauk ez dutela pentsiorik eta beren lanetik, karitatetik edo familiarik bizi behar dutela. Landa-eremuko salvadortarren erdia inguru pobrezia-atalasearen azpitik daude, eta, beraz, seme-alaba askok ezin dute beren adinekoez arduratu."

Lehenbiziko aldia horrelako erakusketa batek horrelako zerbait egiten duena; izan ere, El Salvadorreko emakumeen testigantza azaltzeaz gain, Ozeano Atlantikoaren beste aldean bizi diren haien kideko emakumeen lekukotasunarekin osatzen baitu hura, bideoan grabatutako elkarriketen bidez. Elkarriketa horietan, besteak beste, indarkeria matxistak, diru-sarrerak, etxeko lanen banaketa eta zenbait galderarekin egindako elkarriketak aztertzen dituzte; esate baterako, "Zer esango zenioke iraganeko 'ni'arekin topo egingo bazenu?". edo "Ba al da sexurik hirugarren adinean?"



Erakusketa - Exposición

# BAZTERTUAK

Adineko emakume helduen erretratuak El Salvadorren

# DESCARTADAS

Un retrato de las mujeres adultas mayores en El Salvador

Marc Espín

Otsailak 23 febrero → Apirilak 24 abril

Kutxa Kultur Plaza

Tabakalera, 4 solairua / planta



lagunkoia  
Proiektuak, Azterketak, Sareak

kutxa kultur  
kutxa FUNDAZIOA

DESCARTADOS  
ONG POR LA DIGNIDAD DE LAS PERSONAS MAYORES



Helburua, erakusketako argazkiak atera dituen Marc Espínek dionez, gogoeta eginaraztea da, zahartzaroaren pertzepzioaz, adineko emakumeek dituzten zailtasunez (eta horien kausa eta erronkez) eta garapen-bidean den Erdialdeko Amerikako herrialde batean zahartzearen eta gure lurraldean zahartzearen artean dauden antzekotasunez eta kontrastez.

Martxoan eta apirilean jarduera paralelo bazuk ere izango ditu erakusketak. Hala, mahai-inguru bat ere izango da martxoaren 3ko 18:30ean Kutxa Kultur Plazan (Tabakalera, 4. solairua). Honako hauek hartuko dute parte:

- **Maria Luisa Mendizabal.** Gizarte Zerbitzu Integratuen Kooperatiba sortzea bultzatu zuen, 2017an Zilargi saria jaso eta 20 urte baino gehiagoko esperientzia du Euskal Autonomia Erkidegoan pertsonak zaintzen. Gaur egun, gogotik parte hartzen du Sopuertako Emakumeen Elkartearen, bai eta adinekoen beste elkarte batzuetan ere.
- **Emilio Espín.** Bakearen Kultura saria jaso zuen 2017an, egindako lanak nazioarteko aliantzak lortzen eta adinekoen ongizaterako funtsezko legeak onartzen izandako eraginagatik. ARTE (Hirugarren Adinekoen Landa Elkarte) sortu zuen eta CORDESen Kontseilu Betearazle Nazionaleko kidea da.

Moderatzailea Marc Espín izango da. Kazetaria da, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea (UAB), Descartados GKEaren sortzailea eta presidentea eta izen bereko liburuaren (oraintxe atera du gaztelaniazko eta euskarazko edizio bat) eta Baztertuak argazki-erakustearen egilea.

Apirilaren 7an, Kutxa Kultur Plazak 'Baztertuak'en beste ekitaldi bat hartuko du. Hitzaldia izango da, Raquel Riba Rossy (Lola Vendetta) ilustratzaile feministaren (Descartados liburuaren bigarren edizioan kolaboratzaile izan zen) eta Mari Luz Estebanen artekoa (Gizarte Antropologiako irakaslea UPV-EHU eta erreferentzia bat aktibismo feministaren esparruan. "El manifiesto de las mujeres viejas" poesia liburuaren egilea). Ekitaldiaren aurretik, Egiako **ON DO KO** adinekoen antzerki-dantza taldeak emanaldi artistiko bat egingo du, **Mafalda Saloioren** zuzendaritza artistikoarekin.



Erakusketa - Exposición

# BAZTERTUAK

Adineko emakume helduen erretratuak El Salvadorren

# DESCARTADAS

Un retrato de las mujeres adultas mayores en El Salvador

**Marc Espín**

Otsailak 23 febrero → Apirilak 24 abril

**Kutxa Kultur Plaza**

Tabakalera, 4 solairua / planta



**lagunkoia**  
Proiektuak, Argazkiak, Argazkiak

**kutxa kultur**  
kutxa FUNDAZIOA

**DESCARTADOS**  
ONG POR LA DIGNIDAD DE LAS PERSONAS MAYORES



Donostiako Udaleko Lankidetzaren Sailak eta Donostia Lagunkoia finantzatu dute erakusketa, Kutxa Kulturaren laguntzarekin. Horien eta Tau Fundazioaren eta Descartados GKEak Euskadin duen enbaxadore eta erakusketaren bultzatzaile Begoña Callejaren artean antolatu dute proiektua. Eta Donostiako adineko erretiratuen elkarte batzuen laguntza ere badu.

Informazio gehiago izateko, elkarrizketak kudeatzeko edo material grafikoa eskatzeko: Lankidetzaren Saila. [lankidetz@donostia.eus](mailto:lankidetz@donostia.eus) // 690680818

## INFORMAZIO GEHIGARRIA

### **Marc Espín**

2016az geroztik, adinekoek El Salvadorren dituzten bizi-baldintzak ikertzen aritu da Marc Espín, eta dozenaka etxe bisitatu ditu dokumentatzeko, elkarrizketak eta argazkiak eginez. Bisita horietatik dagoeneko bi edizio dituen liburua, nazioarteko bi erakusketa eta Descartados GKEa sortu ditu. Zahartzaro duinaren alde lan egiten duena eta pobrezia- eta bazterketa-egoeran dauden adinekoei oinarritzko diru-sarrera ematen dien erakundea da Descartados.

### **Descartados, kazetaritzatik GKEra**

Descartados proiektua 2016an hasi zen, Emilio Espín Amprimok, El Salvadorreko Adinekoen duintasunaren aldeko Koalizio Nazionalaren koordinatzaileak, Marc semeari telefonoz deitu eta zera proposatu zionean: Argazki-liburu bat egitea adineko pertsonen bizi-baldintzak dokumentatu eta, horrela, jendearen burura eta bihotzera iristea.



Erakusketa - Exposición

# BAZTERTUAK

Adineko emakume helduen erretratuak El Salvadorren

# DESCARTADAS

Un retrato de las mujeres adultas mayores en El Salvador

Marc Espín

Otsailak 23 febrero → Apirilak 24 abril

**Kutxa Kultur Plaza**

Tabakalera, 4 solairua / planta



**lagunkoia**  
Proiektuak, Argazkiak, Argazkiak

**kutxa kultur**  
kutxa FUNDAZIOA

**DESCARTADOS**  
ONG POR LA DIGNIDAD DE LAS PERSONAS MAYORES



Ikerketaren emaitza "Descartados" liburua izan zen. Liburu hori 2017an argitaratu zen lehen aldiz, eta nazioarteko ospe handiko pertsona askok goraiatu zuten; esate baterako, Frantzisko Aita Santuak (argazkien indarra nabarmendu zuen hark) edo Rigoberta Menchú Nobel saridunak, iruditu baitzitzaien liburu horrek gure adinekoen memoria bizia biltzen duela, eta, horrez gain, sentitu den eta bizi egiten den testigantza dela.

Hala, 2018an sortu zen izen bereko argazki-erakusketa, San Salvadorreko Arte Museoan (MARTE). Harrezkero, Guatemalan ibili da biran, Espainiaren lankidetzarekin, eta Espainian, berriz, Kataluniako, Gaztela eta Leongo, Euskadiko eta Nafarroako dozena bat hiritan izan da.

2018an, Descartados erakundea ere jarri zen abian. Azkenean, 2021ean eratu zen, Marc Espínen lagun eta senideen sare solidario batean oinarrituta. Sare hark babes programa bat ere jarri zuen abian, liburuaren protagonistetako batzuei oinarritzko diru-sarrera bat bermatzeko. Gaur egun, erakundeak egiten dituen proiektuen bidez, El Salvadorreko Tecoluca herriko Lemopa Behereko adineko bostehun pertsona ingururi laguntzen die zuzenean eta zeharka. Descartados GKEek berrogeita hamar bazkide baino gehiago ditu, eta boluntarioz soilik osatutako kudeaketa-taldea.